

Urteko jarraipen-txostena ENKARTERRIKO ESKUALDEKO PLAN ESTRATEGIKOA 2024

B3 BIC BIZKAIA
EZKERRALDEA
UP! EUSKADI



Enkarterriko eskualdeko plan estrategikoaren 59 jarduketak.

Jarduketa horien helburua jardun-eremu lehenetsiak funtsezko eremuetan indartzea da (hala nola ekonomiaren sustapena, enplegua, gizarte-kohesioa, mugikortasuna eta jasangarritasuna).

6 proiektu sustatzaile

1. BARNE- ETA KANPO-MUGIKORTASUNA HOBETZEA, BEREZIKI TRENBIDE-AZPIEGITURA ETA -ZERBITZUA

18 jarduketa.

2. AKTIBO TURISTIKO ETA KULTURALEN ARTEKO LOTURA

13 jarduketa.

3. HEZKUNTZA ETA LAN MUNDUAREN ARTEKO INTEGRAZIOA: LH GARATZEA ETA LANERATZEA SUSTATZEA

16 jarduketa.

4. BANDA ZABALA JARTZEA LANDA-EREMUAK DIGITALIZATZEKO

3 jarduketa.

5 ENPRESENTZAKO ESPAZIOAK SORTZEA


4 jarduketa.

6. ENKARTERRIKO BIOEKONOMIA SUSTATZEA

5 jarduketa.



1.1. JARDUKETEN AURRERAPEN-MAILA



Burututa	38
Gauzatzen	14
Diseinatzen	6
Hasi gabe	0
Bertan behera utzita	1

1.3. EUSKO JAURLARITZAREN JARDUKETEN AURREKONTU OSOA NOLA ERABILI DEN

EK 1

Barne- eta kanpo-mugikortasuna hobetzea, bereziki trenbide-azpiegitura eta -zerbitzua

5.000.000 €
5.000.000 €

EK 2

Aktibo turistikoa eta kulturalen arteko lotura

4.000.000 €
4.000.000 €

EK 3

Hezkuntza- eta lan-munduaren arteko integrazioa: LH garatzea eta laneratzea sustatzea

3.000.000 €
3.000.000 €

EK 4

Banda zabala jartzea landa-eremuak digitalizatzeko

4.000.000 €
4.000.000 €

EK 5

Enpresentzako espazioak sortzea

5.000.000 €
5.000.000 €

EK 6

Enkarterriko bioekonomia sustatzea

3.000.000 €
3.000.000 €

EK 1	% 100
EK 2	% 100
EK 3	% 100
EK 4	% 100
EK 5	% 100
EK 6	% 100

■ Planifikatutako aurrekontu globala
■ Erabilitako aurrekontu globala

Planifikatutako aurrekontua
24.000.000 €


Erabilitako aurrekontua
24.000.000 €

Aurrekontuaren erabilera
% 100

1.3. BIZKAIKO FORU ALDUNDIAREN JARDUKETEN GAUZATZE GLOBALA

EK 1

Barne- eta kanpo-mugikortasuna hobetzea, bereziki trenbide-azpiegitura eta -zerbitzua



EK 2

Aktibo turistikoa eta kulturalen arteko lotura



EK 3

Hezkuntza- eta lan-munduaren arteko integrazioa: LH garatzea eta laneratzea sustatzea




EK 4

Banda zabala jartzea landa-eremuak digitalizatzeko



EK 5

Enpresentzako espazioak sortzea



EK 6

Enkarterriko bioekonomia sustatzea



EK 1	% 41,7
EK 2	% 47,1
EK 3	% 24
EK 4	% 100
EK 5	% 100
EK 6	% 120

Planifikatutako aurrekontu globala
Erabilitako aurrekontu globala

Planifikatutako aurrekontua
41.772.248 €

Erabilitako aurrekontua
21.391.428 €

Aurrekontuaren erabilera
% 51

1.4. PROIEKTU
SUSTATZAILEEN
AURREKONTU OSOA
NOLA ERABILI DEN

PROIEKTU SUSTATZAILEAK			PLAN ESTRATEGIKOAREN AURREKONTUA		
			ESLEITUTA	ERABILITA	Esleitutako %
EK1	Barne- eta kanpo-mugikortasuna hobetzea	EJ*	5.000.000	5.000.000	% 100
		BFA	28.420.995	11.854.911	% 42
		GUZTIRA	33.420.995	16.854.911	% 50
EK2	Aktibo turistiko eta kulturalen arteko lotura	EJ*	4.000.000	4.000.000	% 100
		BFA	6.486.253	3.056.359	% 47
		GUZTIRA	10.486.253	7.056.359	% 67
EK3	Hezkuntza- eta lan-munduaren arteko integrazioa: LH garatzea eta laneratzea sustatzea	EJ*	3.000.000	3.000.000	% 100
		BFA	415.000	100.000	% 24
		GUZTIRA	3.415.000	3.100.000	% 91
EK4	Banda zabala jartzea landa-eremuak digitalizatzeko	EJ*	4.000.000	4.000.000	% 100
		BFA	1.300.000	1.300.000	% 100
		GUZTIRA	5.300.000	5.300.000	% 100
EK5	Enpresentzako espazioak sortzea	EJ*	5.000.000	5.000.000	% 100
		BFA	5.000.000	5.000.000	% 100
		GUZTIRA	10.000.000	10.000.000	% 100
EK6	Bioekonomia sustatzea	EJ*	3.000.000	3.000.000	% 100
		BFA	150.000	180.158	% 120
		GUZTIRA	3.150.000	3.180.158	% 101
EM EPE, GUZTIRA			65.772.248	45.491.428	% 69
EUSKO JAURLARITZA			24.000.000	24.000.000	% 100,00
BIZKAIKO FORU ALDUNDIA			41.772.248	21.491.428	% 51

GRADO DE AVANCE

Grado avance:	
1	Cancelada
2	Sin Iniciar
3	En Diseño
4	En ejecución
5	Finalizada

ENKARTERRI	JARDUKETAK	GRADO DE AVANCE							
		EJ	BFA	1	2	3	4	5	
EK1 Enkarterriko trenbide-azpiegitura eta -zerbitzua hobetzea	EK1.01	Kanpaina geoteknikoa, L4 Proiektua	x					2022	
	EK1.02	Eraikuntza-proiektua idaztea (2022ko amaiera)	x				x		
	EK1.03	Ariz terminalaren seinaleztapena	x					2023	
	EK1.04	Ariz terminala berritzea	x					2022	
	EK1.05	EBBS ikerketa 2021 (Balmaseda-Irauregi tartea)	x				x		
	EK1.06	Irauregi-Lutxana ibilbideko bidea zaharberritzea	x					2022	
	EK1.07	Malabrigo – Traslaviña BI-630 ibilbideko obra		x				2021	
	EK1.08	La Herrera – Malabrigo BI-630 ibilbideko obra		x			x		
	EK1.09	Traslaviña – Turtzioz BI-630 ibilbideko obra		x			x		
	EK1.10	La Escrita – El Callejo BI-630 ibilbideko obra		x			x		
	EK1.11	El Callejo – La Cadena BI-630 ibilbideko obra		x			x		
	EK1.12	Garraio jasangarria: BIZIPARK		x					2023
	EK1.13	Garraio jasangarria: BIZIPUNTO		x					2023
	EK1.14	Traslaviñako biribilgunea		x				x	
	EK1.15	Güeñes - Sopuerta errepideko zorua hobetzea		x				x	
	EK1.16	Kadaguako tunelak		x				x	
	EK1.17	Arbuioko Kadagua ibaiaren gaineko oinezkoentzako eta bizikletentzako pasabidea		x				x	
	EK1.18	La Roblako trenbidea berreskuratzea Güeñesko ibilbide berde gisa		x				x	
EK2 Enkarterriko aktibo turistiko eta kulturalen arteko lotura	EK2.01	Autokarabanentzako aparkalekuen eskaintza handitzea	x					2023	
	EK2.02	Errealitate Birtual Areagotua	x					2023	
	EK2.03	Eskaintza turistiko osoa barne hartzen duen kudeaketa-plataforma digitala	x					2022	
	EK2.04	Aktibo turistikoen eta garraio jasangarriaren arteko lotura	x					2024	
	EK2.05	Enkarterri Bike & Walking	x					2023	
	EK2.06	Ekitaldi bereziak garatzea lurralde-mailan	x					2022	
	EK2.07	Zallako artisten gunea.	x					2024	
	EK2.08	La Encartada Fábrica-Museoan jarduketak egitea		x				x	
	EK2.09	Karpínen hobekuntzak gauzatzea		x				2023	
	EK2.10	Enkarterrin turismoa sustatzeko ekitaldia		x				2022	
	EK2.11	Kirol anitzeko Europako Triatloi Txapelketa 2022		x				2022	
	EK2.12	1000 Gradutan		x				2023	
	EK2.13	Unesco Katedrarekin lankidetzan aritzea		x				2023	

Grado avance:	
1	Cancelada
2	Sin Iniciar
3	En Diseño
4	En ejecución
5	Finalizada

ENKARTERRI	JARDUKETAK		EJ	BFA	1	2	3	4	5
EK3 Hezkuntza- eta lan-munduan integratzea: LH garatzea eta laneratzea sustatzea	EK3.01-10	San Viator (10 jarduketa)	X						2023
	EK3.11-13	Maristak Zalla (3 jarduketa)	X						2023
	EK3.14	Ikasleen absentismoa murrizteko programa		X				X	
	EK3.15	Eskola-garraioa	X						2024
	EK3.16	IKTetan espezializatutako Lanbide Heziketako Ikastetxe Publikoa Balmasedan	X					X	
EK4 Banda zabala jartzea eskualdea digitalizatzeko	EK4.01	5Ga hedatzeko proiektua diseinatzea, planifikatzea eta jarraipena egitea	X						2024
	EK4.02	5G teknologiaren erabilera-kasuak - Dronen laborategia Programa	X		X				
	EK4.03	BFAren eraginpeko eremu zuriak (banda zabala jartzea)		X				X	
EK5 Enpresentzako espazioak sortzea	EK5.01	Longar partzela erostea Zallan (Elkartegi)	X	X					2022
	EK5.02	Eraikina Güeñesen erostea	X						2022
	EK5.03	Elkartegi eraikitzea	X	X				X	
	EK5.04	Güeñesko eraikina zaharberritzea	X					X	
EK6 Enkarterriko bioekonomia sustatzea	EK6.01	Industriarekin lotutako proiektuak	X					X	
	EK6.02	Bioekonomia HUBa	X					X	
	EK6.03	Bioekonomiaren arloarekin lotutako prestakuntza-proiektua garatzea	X					X	
	EK6.04	Basque Desing Center tresneria		X					2021
	EK6.05	Basque Desing Center prestakuntza		X					2022

TRENBIDE-PROIEKTUAK: Enkarterriko trenbide-sarea modernizatzeko eta hobetzeko sei jarduketa egikaritu dira (lau gauzatu dira eta gainontzeko biak garabidean daude). Azpiegitura horiek funtsezkoak dira etorkizunean C4 lineako (Balmaseda – La Concordia) trenen maiztasunak optimizatzeko.

Metroaren 4. linea zabaltzeko, garajeak Irauregin kokatzeko (etorkizuneko linea horri zerbitzua emango diotenak) eta Arizko terminala berritzeko –funtsezkoa Irauregi eta Arizko trenen mantentze-tailerra elkarrekin lotzeko– jarduketak C4 linea hobetzeko aurrerapen estrategikoak dira.

Gainera, jarduketa horiek 4. linea Abando, Zorrotza eta Alonsotegiko geltokiekin lotzeko oinarriak ezarriko dituzte; hala, geltokiak jarriko dira Irala, Errekalde eta Basurtu auzoetan.

BI-630 ERREPIDEKO HOBEKUNTZAK: errepide hori berritzeko proiektuak bost zati barne hartzen zituen; horietako bat amaitu da jada (Malabrigo-Traslaviña), eta gainontzekoak diseinu-fasean daude, ingurumen-izapideen zain.

ERREPIDEAK BERRANTOLATZEA ETA MODERNIZATZEA: 2024an, gauzatzen ari diren hiru jarduketa mantentzen dira: Traslaviñako biribilgunea, bidezoruak hobetzea Sopuerta eta Güeñes lotzen dituen bidean, eta Kadaguako tunelak egokitzea eta modernizatzea.

GARRAIO JASANGARRIA: garraio jasangarria sustatzeko lau ekintzetatik, bi amaituta dira, eta bi abian daude:

- ✓ Arbuio auzoan (Alonsotegi), Kadagua ibaiaren gaineko oinezkoentzako eta bizikletentzako pasabidea.
- ✓ La Roblako trenbidea berreskuratzea Sodupe eta Bolibar arteko ibilbide berde gisa

EK2. Aktibo turistiko eta kulturalen arteko lotura

ONDAREA BERRESKURATZEA - ESKAINTZA TURISTIKOA: proiektu honek funtsezko ekimenak ditu abian (hala nola **La Enkartada Fabrika-Museoa** birgaitzea), eskaintza turistiko eta ondarearen kontserbazioa sustatzeko helburuarekin.

Ubidea eta turbina berreskuratzeko proiektua garatzen jarraitzen da, inor ez zelako aurkeztu lehen konkurtsora. Gaur egun, beste deialdi bat egiteko eta esleipena bermatzeko lizitazio-baldintzak berrikusten ari dira. Bestalde, teilatua konpontzeko lanak jada esleitu dira, eta kontratua sinatu da. Aurreikuspenen arabera, obrak 2025eko lehen hiruhilekoan hasiko dira.

Burutu egin dira turismo-azpiegituren eta arte sortzailearen programaren garapena sustatzeko ekimenak, bai eta estrategia digitalen eta ekitaldien bidezko turismo-sustapena ere.

EK3. Hezkuntza- eta lan-munduaren arteko integrazioa: LH garatzea eta laneratzea sustatzea

Lanbide Heziketa sustatzeko neurriak osatu eta Batxilergoan eta Lanbide Heziketan eskola-mugikortasuna hobetzeko ekintzak ezarri dira.

BALMASEDAKO LHko IKASTEHE PUBLIKOA

2024an, Udalak Hedegile kaleko udal-eraikin bat laga dio Hezkuntza Sailari, Sailak birgaitu eta ondoren ekipamendua hornitu dezan. Gainera, Balmasedako Institutuak bi gela laga ditu aldi baterako 2024-2025 ikasturtean teknologia berrietan espezializatutako goi-mailako bi gradu emateko: Web-aplikazioen Garapena eta Plataforma anitzeko Aplikazioen Garapena.

IKASLEEN ABSENTISMOA MURRIZTEKO PROGRAMA: 2024an, Enkarterriko eta Ezkerraldeko ikastetxeetako absentismoari buruzko datuak laburbildu eta aztertu dira, eta haurren zerbitzuan espediente irekia duten eta babesgabetasun-egoeran dauden adingabeen datu-basearekin alderatu egin dira. Ildo beretik, absentismo-batzordea berraktibatu da osabidezko hezkuntzako partzuergoaren barruan, eta gizatalde absentisten portaera aldatzeko estrategia garatzeko lan egiten ari da; ziur aski, Gueñesko ikastetxe batean egingo da jarduketaren lehen saiakuntza.

EK4. Banda zabala jartzea landa-eremuak digitalizatzeko

DRONEEN HEGALDI AUTONOMOETARAKO 5G LABORATEGIA: ekimen hau eten egin da, bulego ekonomikoak hala gomendatu duelako, baldintza-agiriaren bideragarritasunik eza dela eta.

BANDA ZABALA JARTZEA: EPEetan adierazitako ekintza 2024an bertan behera utzi bazen ere, ministerioak landa-eremuetan 5G teknologia hedatzeko laguntza-programa bat argitaratu du; ondorioz, Enkarterrin –ia eremu osoan– banda zabala ezartzeko helburua bete ahal izango da (Telefónicak lortu zuen esleipena).

EREMU ZURIAK: banda zabaleko planak Alonsotegi, Artzentales, Galdames, Güeñes, Karrantza, Lanestosa, Sopuerta eta Zallako udalerrietan aurreikusitako 664 etxebizitzetatik 558 estaltzea barne hartzea lortu du. Hala ere, eremu batzuetan ezin izan zen banda zabala jarri, telefonien enpresen akordio eta interes ezak zirela eta. Banda zabala jartzeko proiektua osatzeko, hedapena bultzatuko duen **dekretu berri bat** onartu da 2024an.

EK5. Enpresentzako espazioak sortzea

ZALLAKO ELKARTEGIA: 2023an, Azpiegiturak erakundeak Zallako Elkartegiko obrei zegozkion 4,6 milioi euroko lizitazioa egin zuen, eta, aurreikuspenen arabera, 2024an eta 2025ean gauzatuko da proiektua. Proiektuak bi eraikin hartzen ditu barne: 1800 m²-ko bat (sei espazio modular eta enpresa berrietarako bi eremu dituen), eta 2500 m²-ko beste bat (zortzi modulu taldekagarri dituen). **2024an**, obrek **aurreikusitakoaren arabera egin dute aurrera**, eta **2025eko** martxoan **amaituko** dira. Orain arte, hamar enpresak erakutsi dute bertan egoteko interesa, baina ez da akordiorik sinatu.

ERAIKINA EROSTEA GÜEÑESEN: 2022an, Bioekonomiako Polorako eraikina erosi eta hura birgaitzeko proiektua hasi zen. 2023an, eraispen partziala gauzatu eta egitura aztertu egin zen. Azterketa horretan, kalte batzuk identifikatu ziren, eta, ondorioz, proiektua birpentsatu behar izan zen. **2024an**, azterketa zehatzagoa egin ondoren, **eraikina guztiz eraistea erabaki zen** (birgaitu beharrean). Egitura eraisteko eta eraikin berri bat eraikitzeko obrak dagoeneko esleitu dira, eta 2025ean gauzatuko dira.



Zallako Elkartegia



Bioekonomia HUBa

EK6. Enkarterriko bioekonomia sustatzea

INDUSTRIAREKIN LOTUTAKO PROIEKTUAK: artilea berrerabiltzeko proiektua garatzen jarraitzen den arren, Enkarterriko sustatzaile batzuek proiektua birbideratu egin dute, eta, orain, **ongarri organikoak** ekoizten dituzte.

BIOEKONOMIA HUBa: 2024an, ideia-lehiaketan hautatutako 7 proiektuek 1,1 milioi euroko finantzaketa jaso zuten. Izan ere, proiektu horiek garatzen jarraitzen dira, eta, aurreikuspenen arabera, horietako batzuk Bioekonomia HUBean ezarriko dira. Baliteke HAZIK 2025ean bigarren deialdi bat egitea. EK5.04 eraikina 2025aren amaieran egongo da erabilgarri, eta haren kudeaketa eta zerbitzuak lizitazio bidez esleituko dira.

PRESTAKUNTZA-PROIEKTUA: 2024an, enbriogenesi-protokoloak Neiker erakundetik San Viator ikastetxera transferitzeko urratsak eman dira (jarduketa burutzeke dago), eta oraindik zeregin horrekin lotutako proiektu bat aurkeztu behar zaio Hezkuntza Sailari, ezagutza transferitzeko proiektu hori finantzatzeko, enbriogenesi somatikoko laborategiaren balioa nabarmentzeko, eta EK3 proiektu sustatzailean gauzatutako landareak hazteko berotegia indartzeko.



Enbriogenesirako laborategia